

Ebazpena: R026/2025
Espedientea: E072/2022

Vitoria-Gasteiz, 2025eko irailaren 24a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea kide hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek, eta hau erabaki dute:

ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak (BFA) Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren (ZAEA) aurrean planteatutako gatazkari buruzkoa, zehazteko norena den Langileen Kostuen eta Pentsio Publikoen Zuzendaritza Nagusiak —gaur egun, Gizarte Segurantzaren Antolamenduko Zuzendaritza Nagusia— (aurrerantzean, LKPPZN; IFK: XXXXXXXX1) egindako atxikipenak ordainarazteko eskumena. Atxikipen horiek estatuko Administrazio Instituzionala osatzen duten entitateentzat 2018. urtean egindako lanen ondoriozkoak dira. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan ari da izapidetzen, 72/2022 espedientezenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- 2019ko irailaren 13an, BFAk ZAEARI eskatu zion bidal zitzala LKPPZNk 2018an ohiko bizilekua Bizkaian zuten hainbat jasotzaileri egindako atxikipenak (28.486.703,87 euro).

2.- 2022ko maiatzaren 17an, ZAEAk partzialki onartu zuen 28.129.600,57 euroko eskaera.

ZAEAREN ustez, berari dagozkio Estatuko Administrazio Instituzionaleko enteen zerbitzuak eman dituzten eta Ekonomia Itunaren 7.Bi artikuluen azken paragrafoan jasota ez dauden jasotzaileen atxikpenak, eta horregatik ezetsi ziren 222.707,76 euroko atxikpenak.

3.- 2022ko uztailaren 28an, BFAk inhibizio-errekerimendua egin zion ZAEARI, eta hark isilbidez berronetsi zuen bere eskumena.

4.- 2022ko irailaren 27an, BFAk eskumen-gatazka planteatu zuen Arbitraje Batzordean (72/2022 espediente-zenbakia eman zitzaion), eta eskatu zuen hura izapide zedila Ekonomia Itunaren 68. artikuluan ezarritako efektuak zabaltzeko prozeduraren bidez .

5.- Araudiak eskatzen duenez jakinarazpenak prozedura telematiko bidez egiteko, eta horrek esan nahi duenez izapideak egin behar direla horretarako prestatutako plataforma elektronikoaren bidez , alegazioen izapide bakarra eman zitzaien 68.Hiru artikuluan aipatutako aldeei, hilabeteko epean luzatuz gero prozeduraren baliozkotasunari batere eragiten ez dion salbuespenarekin.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Alde batetik, Arbitraje Batzordeak eskumena du ebazteko estatuko Administrazio Instituzionalean egindako lanen ondoriozko atxikpenak ordainarazteko

eskumena, eta, era berean, Itunaren 7.Bi artikuluen azken paragrafoaren interpretazioa ere egiten du, Itunaren 66.Bat artikuluan ezarritakoaren arabera. Artikulu horrek, lehenengo bi letretan, honako eginkizun hauek zehazten ditu:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea».

Bestalde, Arbitraje Batzordeak eskumena du gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 68.Hiru artikuluan xedatutako efektuak zabaltzeko prozeduraren bidez. Artikulu horrek hau ezartzen du:

«Baldin eta norbait parte bada ekonomia-itun honetan ezarritako Arbitraje Batzordean dagoen gatazka batean, eta auzi horren muinean dagoen kasuaren oinarria jada ebatzita badago beste auziren batean Arbitraje Batzordeak emandako ebazpen irmo batez, ebatzi gabe dagoen auzia ebazpen irmo horren ondorioak zabalduz ebatz dadila eskatu ahal izango du.

Hori dela eta, Arbitraje Batzordeak gainerako alderdi interesdunei helaraziko die ebazpen irmoaren efektuak zabaltzeko eskaera-idazkia, hamar eguneko epe komunean kasuen oinarriari buruzko alegazioak egin ditzaten, eta ebatzi beharko du ebazpen irmoaren ondorioak zabaltzen

dituen ala arau orokorreari jarraituz arbitraje-prozedurak hilabetez aurrera jarraituko duen».

2.- Arbitraje Batzordearen jarrera.

Arbitraje Batzordeak doktrina bat ezarri du jada, behin eta berriz errepikatua, besteak beste ebazpen hauetan: 111/2023, 104/2023, 168/2022 (haren 2/104/2023 errekurtsioa ezetsi egin zen Auzitegi Gorenean), 137/2022 (Auzitegi Gorenaren 1313/2023 Epaiak berretsia —ECLI:ES:TS:2023:4304—), 77/2022 (haren 2/1000/2022 errekurtsioa ezetsi egin zen Auzitegi Gorenean) eta 76/2022 (Auzitegi Gorenaren 1268/2023 Epaiak berretsia —ECLI:ES:TS:2023:4215—). Haren arabera, ulertzen da Ekonomia Itunaren 7.Bat artikulua arau orokorraren bidez zehazten dela Estatuko Administrazio Institutuzionalaren edozein entetan emandako zerbitzuen ondoriozko atxikipen pasiboak ordainarazteko eskumena, eta ez 7.Bi artikulua lehenengo paragrafoaren bidez.

15/2016 eta 4/2017 ebazpenek (Auzitegiaren 617/2018 Epaiak berretsia —ECLI:ES:TS:2018:1398—), prestazio aktiboetatik eratorritako atxikipenei buruzkoak izan arren, irizpide bera jasotzen zuten 7.Bi artikulua lehenengo paragrafoaren aplikazioa baztertzeari buruz eta Ekonomia Itunaren 7.Bat artikulua arau orokorrera igortzeari buruz.

Aurreko kasuetan, Auzitegi Gorenak Arbitraje Batzordearen doktrina berretsiz zuenean, zerbitzuak eman ziren edo ematen ari ziren organismoaren izaerari buruzko azterketa zehatza egiteari uko egin gabe, argi utzi zen Ekonomia Itunaren 7.Bat artikulua arau orokorrean jasotzen dela Estatuko Administrazio Institutuzionala osatzen duten organismoen kasu guztietan atxikipenak ordainarazteko eskumena (prestazio pasiboen kasuan, LKPPZNk gauzatzen du)

. Beraz, baztertu egin behar da 7.Bi artikulua lehenengo paragrafoaren arau berezia .

Horregatik guztiagatik, Arbitraje Batzordeak uste du auzi-jartzailearen uzia baietsi behar dela, Ekonomia Itunaren 68.Hiru artikulua efektuak zabaltzeko prozeduraren bidez, arrazoi berbera baitago 72/2022 espedientearen kasuan eta Arbitraje Batzordeak ebatzitako eta Auzitegi Gorenaren epai irmo bidez berretsitako kasuetan.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hau

ERABAKI DU

1.- Deklaratzea BFari dagokiola ordainaraztea LKPPZNk 2018. urtean Bizkaian bizi diren jasotzaileei egindako atxikipenak, atxikipen horiek Estatuko Administrazio Instituzionala osatzen duten enteetan emandako zerbitzuen ondorio direnean.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta Langileen Kostuen eta Pentsio Publikoen Zuzendaritza Nagusiari.

Izpta.: Violeta Ruiz Almendral.

Izpta.: Sofía Arana Landín.

Izpta.: Javier Muguruza Arrese.